

## Bizia &lt; Plaza



Gazteak izan dira Donostia Ice Camp jaialdiko protagonistak. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

rarekin eta ikasteko erakutsi duten gogoarekin», azpimarratu dute entrenatzaileek.

Lehenengo aldiz egin dute Donostia Ice Camp topaketa; heziketa teknikoa ematea baino helburu zabalagoa du; «patinatzaileak kirolari eta pertsona moduan hezitzea da gure helburua», adierazi du Iñaki Bolea Txuri Urdin taldeko presidentek. Bolearen ustez, oso positiboa da Txuri Urdin eta Txuri Berri taldeek horrelako ekitaldia antolatzeke izan duten gaitasuna, eta, etorkizunean egingo diren proiektuak aurrera eramateko, ezibestekoa ikusten du bi taldeak ondo ulertzea.

**Ikuskizuna jaialdiaren parte**  
Gabonetan, Txuri Urdin Jauregi-ko ateak ireki eta izotz gaineko ikuskizun handia antolatzen dute Txuri Berri taldeko kideek. Aurten, Ice Camp topaketen harira eta mundu osoko irristalaririk onenak Donostian izanda, erabaki zuten izotz gaineko ikuskizuna udan ere egitea; bertan, Jon Garcia Espainiako patinaje artistikoko txapelduna aritu zen, eta izotz jauregiak dituen 650 eserlekuak bete ziren.

Jaialdia amaitzeko egun batzuk falta badira ere, antolatzaileak «oso pozik» daude lortutako parte-hartzearekin eta harrerarekin oro har. Hurrengo urtera begira, topaketak berriz ospatzea espero dute, eta, denborekin, Europa osoan erreferentzia garrantzitsua izatea espero dute. Horrez gain, izotz gaineko kirolak sustatzeko lanarekin jarraituko dute Gipuzkoako eta Euskal Herriko gazte eta helduen artean.

# Kanpoan hotz, barruak bero

Mundu osotik iritsitako patinatzaileak bildu dira Anoetako Izotz Jauregian, Donostia Ice Camp jaialdian parte hartzeko

**Aitor Artola** Donostia

Gogo handiarekin ekin diote ehunka gaztek Donostian ospatu-

ko duten Ice Camp jaialdiari. Izotz gaineko kirolei eskainitako topaketa horrek, Euskal Herriko eta atzerriko herrialdeetatik iritsitako gazteak bildu ditu Txuri Urdin Izotz Jauregian, abuztuan. Askok eman dute izena ikastaroetan parte hartzeko; asko ere tokirik gabe gelditu eta hurrengo urtea noiz iritsiko zain gelditu dira.

Txuri Urdin eta Txuri Berri taldeek elkarlanean antolatutako ekitaldian, ehundik gora irrista-

larik hartu dute parte, patinaje artistiko eta Hockey modalitateetan; horien artean, Kanadako, AEBetako eta Europako hainbat herrialdeetatik iritsitako gazteak egon dira. Patinatzaileak, hamar eta hamazazpi urte bitarteko neska-mutilak izan dira, eta adinez gazteak badira ere, nazioarteko txapelketetan parte hartutakoak dira horietako asko.

Bi aste iraun duen ikastaro honetan laguntzeko, Europako ipa-

rraldetik etorritako irristalari profesionalak aritu dira irakasle. Patinaje artistikoaren inguruko ikastaroak prestatzeaz ardurartu dira Yuri Bureiko Nazioarteko Irriatalari Eskolako zuzendaria eta Marina Serova Nazioarteko Eskolako entrenatzailea. Izotz gaineko Hockeyari dagokionez, Jean Michael Lautaud Angeluko entrenatzaile eta jokalaria ohiak lagundu ditu irristalari gazteak. «Oso pozik gaude, hurren jarre-

## Uda honetan **berria** zurekin

**Alacant** Benidorm

**Castello** Benicassim, Orpesa, Torreblanca, Alcossebre, Port de Castello

**Bartzelona** Bartzelona, Sitges, Vilanova i la Geltru, Calella, Malgrat

**Errioxa** Castañares, Haro, Ezkarai, Ozkabarte, Bañares (kanpalekua), San Vicente de la Sonsierra

**Kantabria** Isla, Laredo, Noja, Santander, Torrelavega, San Vicente de la Barquera

**Asturias** Cangas de Onís, Ribadesella

**Landak** Capbreton, Castets, Contis, Hosegor, Leon, Linxe, Lit Et Mixe, Magescq, Messanges, Mimizan, Moilets, Saint-Julien-en-Born, Seignosse Le Penon, Seignosse, Soustons, Saint-Girons, San Bisentse, Vielle-Saint-Girons, Vieux-Boucaux

**Aragoi** Jaka, Villanua, Canfranc, Astún, Candanchu, Huesca

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**

Harpidetzak ezingo dira leku hauetara bideratu.

**berria**

Xinjiangen 156  
lagun hil ditu  
Txinako Poliziak.